

- 1) **Zerrenda honetan sendagai berezia ez dena aukeratu**
- a) Sendagai psikotropikoak
  - b) Sendagai homeopatikoa
  - c) Formula magistralak
  - d) Sendagasak
- 2) **Zein da errezetaren definizioa?**
- a) Osasun-izaera duen dokumentua, normalizatua eta derrigorrezkoa, zeinaren bitartez legalki ahalmendutako medikuek, odontologoek edo podologoek, eta beren kompetentzien eremuan, gaixoei preskripzio medikura lotutako sendagaiak edo osasun-produktuak agintzen dituzten, farmazia bulegoetan eta haien menpeko botikinetan edo, indarreko legeak aurreikusten duenaren arabera
  - b) Osasun-izaera duen dokumentua, normalizatua eta derrigorrezkoa, zeinaren bitartez legalki ahalmendutako medikuek, erizainek, odontologoek edo podologoek, eta beren kompetentzien eremuan, gaixoei preskripzio medikura lotutako sendagaiak edo osasun-produktuak agintzen dituzten, farmazia bulegoetan eta haien menpeko botikinetan edo, indarreko legeak aurreikusten duenaren arabera
  - c) Osasun-izaera duen dokumentua, normalizatua eta derrigorrezkoa, zeinaren bitartez bakarrik legalki ahalmendutako medikuek eta beren kompetentzien eremuan, gaixoei preskripzio medikura lotutako sendagaiak edo osasun-produktuak agintzen dituzten, farmazia bulegoetan eta haien menpeko botikinetan edo, indarreko legeak aurreikusten duenaren arabera
  - d) Guztiak okerrak dira
- 3) **Errezetaren baliogabetza totalerako arrazoiak:**
- a) Dispentsatutako ontzikia preskribatutakoa baino handiagoa denean
  - b) Dispentsazio data falta denean
  - c) Medikoa sinatutako eta azaldutako zuzenketa.
  - d) Erantzun guztiak okerrak dira
- 4) **Errezeten onuradunen ekarpenari buruz, okerra aukeratu:**
- a) Osasun Sistema Nazionaleko aktiboen errezeten kasuan ekarpena, orokorrean %40koa da
  - b) Osasun Sistema Nazionaleko aktiboen errezeten kasuan ekarpena, EAEan %40koa da
  - c) MUFACEko errezetekin ekarpena %30koa da
  - d) ISFASeko errezetekin ekarpena %30koa da
- 5) **Sendagai ordezkaezinak:**
- a) Medikamentu biologikoak, benabarnetik administratzen direnean izan ezik
  - b) Arnasbidetik inhalatuta administratzen diren arnas aparatutako medikamentuak
  - c) Estupefazianteak
  - d) Erantzun guztiak zuzenak dira
- 6) **Errezeta liburuan dispentsazio hauek idatzi behar dira:**
- a) Formula magistralak, psikotropoak, estupefazianteak, ECM, albaitaritzan erabiltzeko giza-sendagaiak, Ospitale Diagnostikorako medikamentuak
  - b) Formula magistralak, estupefazianteak, ECM eta albaitaritzan erabiltzeko giza-sendagaiak baino ez
  - c) Formula magistralak, prestakin ofizinalak, psikotropoak, estupefazianteak, ECM, albaitaritzan erabiltzeko giza-sendagaiak, Ospitale Diagnostikorako medikamentuak
  - d) Guztiak okerrak dira

**7) Medikamentuen etiketatuari buruzko erantzun OKERRA aukeratu**



- a) Sendagai fotosentikorra  
b) ● Medikamentu hau dispentsatzeko estupefazienteen errezeta ofiziala behar da



- c) Gidatzeko edo makineria arriskutsua maneiatzeko gaitasuna murriztu dezakeen medikamentua  
d) EFG: Equivalente Farmacéutico Genérico

**8) Sendagaien eta Osasun Produktuen Bermeari buruzko eta erabilera arrazionalari buruzko Legearen arabera, medikamentu baten preskripziorako baldintzak Medikamentu eta Osasun Produktuen Espainiako Bulegoak ezartzen ditu eta preskripzio medikua behar duten sendagaien barruan honela sailka ditzake:**

- a) Preskripzio mediku berriztagarriako edo preskripzio berriztagarriako ez diren medikamentuak  
b) Preskripzio mediku berezia behar duten medikamentuak  
c) Preskripzio mediku mugatua duten medikamentuak, espezializatutako leku konkretu batzuetan baino ez erabiltzeko  
d) Guztiak zuzenak dira

**9) Sendagaien etiketatuak. Oker dagoena aukeratu**

- a) Sendagai guztiek legenda hauetakoren bat eduki behar dute: "MEDICAMENTO SUJETO A PRESCRIPCIÓN MÉDICA" edo "MEDICAMENTO NO SUJETO A PRESCRIPCIÓN MÉDICA"  
b) Sendagai publizitarioek, kode nazionalaren ondoan EFP siglak edukiko dituzte  
c) Prestakin ofizinaletan etiketan lote zenbakia edukiko dute  
d) Sendabelarrekin prestatutako sendagaien kasuan legenda hau agertuko da "BASADO EXCLUSIVAMENTE EN SU USO TRADICIONAL"

**10) Prezinto kupoia**

- a) Finantzarriak diren sendagaiek A.S.S.S siglak dituzte prezinto kupoian  
b) Prezinto kupoian puntu beltza agertzen bada, estupefaziente bat dela adierazten du.  
c) Prezinto kupoian EXO siglek kanporako erabilerarako (uso externo) sendagaia dela adierazten dute  
d) Prezinto kupoia goi partean hiruki beltza agertzen bada mediku zaintza bereziko sendagaia dela adierazten du

**11) Zer da "Ikerkuntza klinikoan dauden sendagaien erabilera errukiorra"?**

- a) Espainian baimena lortu baino lehen medikamentuen erabilera gaixotasun kronikoak edo oso ahulgarriak dituzten gaixoak tratatzeko edo bere bizitza arriskuan dutenean eta baimendutako sendagai batekin tratatu ezin direnean. Sendagaiak bideratua eduki behar du baimena eskuratzeko eskubidea edo ikerkuntza kliniko fasean egon beharko da.  
b) Sendagaien erabilera baimendutako fitxa teknikoan agertzen diren baldintzetatik aparte  
c) Beste Estatuetan baimendutako baina Espainian baimenik gabeko sendagaien erabilera.  
d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

**12) Albaitaritzan erabiltzen diren sendagaien etiketatuan “Administración exclusiva por el veterinario” legenda agertu behar da kasu hauetan**

- a) Albaitariak administratu beharreko medikamentuen kasuan
- b) Albaitariak gainbegiratuta administratu beharreko medikamentuen kasuan
- c) Albaitariaren preskripzioa behar duten sendagai guztien kasuan
- d) Lehenengo eta bigarren erantzunak zuzenak dira.

**13) Erreferentzia prezio barruan dagoen markako sendagai baten ordezkapena**

- a) OSNak finantzatu behar duen markako sendagai bat preskribatzen denean, beti ordezkatu beharko da, eta ordezkapena prezio baxuena duen generiko batengatik izango da
- b) OSNak finantzatu behar duen markako sendagai bat preskribatzen denean, beti ordezkatu beharko da prezio baxuena duen edozein sendagaiagatik.
- c) OSNak finantzatu behar duen markako sendagai bat preskribatzen denean, gutxieneko prezioa gainditzen badu ordezkatu beharko da, eta ordezkapena prezio baxueneko sendagai batengatik egin beharko da, prezio berdintasunean generiko batengatik
- d) Guztiak okerrak dira.

**14) Sendagaien dispentsaziorako eta etiketaturako arauak.**

- a) Ospitaletarako Sendagaiak (uso Hospitalario) Ospitaleei dispentsatu ahal dizkiegu, baina ez publikoari. Egokitzapenean “H” ikurra agertzen da eta ASSS prezinto kupoirik ez daukate.
- b) I.go zerrendako osagai estupefazienteak dituzten sendagaiak borobil beltza edukiko dute etiketatuan. Farmazia bulegoetan dispentsatu daitezke, baina Osasun Sistema Nazionalarengatik finantzagarriak izateko estupefazienteen errezeta ofizialean preskribatu behar dira
- c) Medikuzko Zaintza Berezikoko sendagaiak egokitzapenean eta prospektuan testu hau daramate “Especial Control Médico” eta ECM siglak Kode Nazionalaren ondoan. Dispentsazioa errezeta liburuan idatzi behar da eta Osasun Sailari hiru hilabeteko mugimenduen zerrenda igorri behar zaio
- d) Guztiak zuzenak dira

**15) Formula magistralak eta prestakin ofizialak**

- a) Farmazia bulego batek fabrikazio zuzenerako eta kalitate kontrolerako arauak betetzen dituen laborategia (RD 175/2001) ez badauka, bertan ezin dira formula magistralak edo prestakin ofizialak dispentsatu
- b) Formulario Nazionalan agertzen ez diren prestakin ofizialak egin daitezke, farmazia bulegoak Osasun Sailak emandako baimena badauka
- c) a eta b erantzunak zuzenak dira
- d) a eta b erantzunak okerrak dira

**16) Ze kasutan dispentsatu dugu behar baino ontziki gehiago Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailarekin sinatutako hitzarmenaren arabera?**

- a) Actrapid innolet 100UI/ml aldeazurretik kargatutako 3 ml-ko 5 luma® (intsulina). 3 ontziki
- b) Ceftriazona 1g im, 5 ontziki (antibiotikoa, ATC sailkapenean J01DD taldekoa)
- c) Cefuroxima-axetilo 3 ontziki (aho bidezko antibiotikoa, ATC sailkapenean J01DC taldekoa)
- d) Guztietan

**17) Estupefazianteen dispentsazioa**

- a) Estupefazianteen errezetak 60 egun balio ditu
- b) Estupefazianteen errezeta ofizialean sendagai bakarra preskribatuko da eta ontzi bakarra
- c) Sendagaia eskuratzen dituen pertsonaren NAN zenbakia idatzi beharko da eta dispentsazioa errezeta liburuan eta estupefazianteen kontabilitate liburuan idatzi beharko da
- d) Guztiak zuzenak dira

**18) Aukeratu gaizki dagoena:**

- a) O: Sendagai finantzagarria
- b) DH: Ospitale diagnostikorako sendagaia
- c) ECM: Mediku Zaintza bereziko sendagaia
- d) H: Ospitaleko sendagaia